

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Hezkuntza departamentuak 450 plaza eman ditu egun bakar batean, aplikazio telematikoari esker

*Orain arte, hainbat aste behar izaten ziren bete gabeko plaza horiek banatzeko*

Ostirala, 2017.eko irailak 1

Irakasleen kontratazio telematikoa egiteko ATPak 1300 eskari jaso ditu 24 ordu eskasetan, eta egun bakar batean ebatzi dira. Plaza horietara 7000 bitarteko irakasle zeuden deituta.

Aurreko ikasturteetan, bitarteko irakasle plaza banaketak telefono bidez egiten ziren eta, beraz, hainbat astez luzatzen zen prozedura. Aplikazioari esker, plazen banaketa azkartzeaz gainera, erraztu egin da aukeraketa. Era berean, gardentasunean ere irabazi da. Izan ere, antzematen diren akatsak berehala konpondu daitezke. Bestalde, deialdia bera ere erosoagoa da, dagoeneko irakasleek ez baitute telefono deiaren zain egon behar hainbat astez, orain arte bezala.

### Akatsa zuzenduta

ATP aplikazioa maitzean hasi zen erabiltzen, aparteko jazoerarik gabe. Abuztuaren 31ko plaza-banaketan akats informatiko bat antzeman zen eta ordubete eskasean zuzendu zen, bestelako ondoriorik gabe. Aplikazioak aurretik egindako eskariak ezabatu eta berriak egitea ahalbidetzen duenez, ezabatutako eskarietako batzuk ez ziren aintzat hartu. Baina, akatsa atzeman eta berehala, ordu bete eskasean, arazoa konponduta geratu zen eta bitarteko irakasleei euren behin betiko plazaren berri jakinarazi zitzaien.